



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
“Txuri Urdin” Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

PARTIDU ETA LEHIAKETEN ARAUTEGIA

EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

LEHENENGO IZENBURUA

ARAUTEGI NAGUSIA

I. KAPITULUA – XEDAPEN OROKORRAK

1. ART.

EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAK antolatutako edonolako modalitate ala kategoriako partidu guztiak Arautegi honen, une bakoitzean indarrean dagoen Joko-Arautegiaren, lehiaketak berezkoak dituen arautegien eta aplikagarriak diren gainerako arautegien arabera zuzenduko dira.

2. ART.

Partidu eta Lehiaketetako Arautegi hau EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAREN eskumeneko organoek interpretatu eta aplikatuko dute, dagozkien eremuetan.

3. ART.

Rugbyko Denboraldi ofiziala urteroko Irailaren batean hasiko da eta hurrengo urtearen Abuztuaren batean amaituko da.

4. ART.

EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAREN Lehiaketetan parte hartzeko sailkatzen diren Lurralde Federazioek antolatutako txapelketak eta lehiaketak Lehiaketa hauek arautzen dituzten arautegietan aurreikusitako aurrerapenarekin amaitu beharko dira.


5. ART.

Ezinbestean ala ez ohiko nahiz hondamenezko zirkunstantzien kasuan, EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAK bere eskumenaren ardurapean antolatutako lehiaketetan joko-denboraldi ofiziala aldatu, murriztu, eten ala hedatu ahal izango du.

II. KAPITULUA – EUSKAL SELEKZIOAK

6. ART.

EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAK Euskal Seleksioen jarduerak antolatuko ditu, egokitzen jotzen dituen kategoria ala modalitateen arabera eta lehiaketetako egutegiak hauen mendean egongo dira.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

7. ART.

Euskal Selekzioen deialdira bertaratzeak Zuzendari jaun/andreek eta Teknikari jaun/andreek kontzentrazio, partidu ala txandetan ezarritako diziplinaren, hala nola xede hauetarako EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAK ezarritako arau eta arautegiaren onarpena suposatzen du.

8. ART.

Euskal Selekzioak eratzeko, jokalariek indarrean dagoen legeria eta EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAK ezarritako arauekin egokitu beharko dira, eta ez dira federazio lizentziaren etenaldiaren eraginpean egongo.

9. ART.

Euskal Selekzioetako jokalariek lehiaketaren eremuan ala honetatik kanpo kontzentrazio, entrenamendu, partidu ala txanda, diziplinarik ezarengatik eginiko arau-hausteak arautegi honen eta aplikagarriak diren gainerako arauen arabera zigortuko dira.

EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAK, denboraldiaren hasieran eskumeneko bere organoen bidez selekzio ezberdinekin nahiz klubek lehiaketekin lotutako jardueraren egutegia ezarriko du. Kategoria berdinetan selekzio eta klubek jarduerak aldi berean ez suertatzea bilatuko du.


Edozein kategoriako euskal selekzio ezberdinetako EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAK onartutako egutegian azaltzen diren entrenamendu ala partiduetarako izendatutako jokalariek, hauetan parte hartzea onartzen ez badute, ezin ahal izango dira bere klubekin selekzioaren jardueran ospatuko den data ala asteburu berdinean beste kategoria bateko jardueretan ala lehiaketetan lerrokatu zeinetan bere adinarengatik parte hartzea zilegi izango bailitzaieke. Xedapen hau ez betetzea lerrokatze desegokia kontsideratuko da.

BIGARREN IZENBURUA LEHIAKETAK

I. KAPITULUA – PARTIDUEN ANTOLAKETA

10. ART.

Ondorengoak lehiaketa ofizialak kontsideratuko dira, betiere onartutako egutegietan izaera horrekin azaltzen badira:



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

- a) EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAK antolatutako Lehiaketak ala Ligak.
- b) Euskal Selekzioen partiduak.

Ofiziala ez den partidua aurreko puntuetan azaltzen ez den ala onartutako egutegietan lehiaketa ofizial bezala azaltzen ez den beste edozein izango da. Partidu hauek guztiak arautegi honetan ezarritako arau eta hauek ospatzeagatik gertatu ahal diren gertaerekin lotutako gainerako arautegien mendeaz geratzen dira.

Arautegi honen barne lehiaketan, partiduen antolaketan, arau-hauste eta zigorretan parte hartzearekin lotutako Kluben aipamenak, bere kasuan, Euskal Selekziotan, dagozkion eremu eta lehiaketetan, aplikatu ahal izango direla ulertuko da.

11. ART.

Partidu ofizial orotan lokal bezala jokatzeko duen Klubak EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZARI, epaile jaun/andreari eta klub aurkariari, jasota utziko duela ziurtatuta eta Arautegi honetan nahiz dagokion lehiaketarekin lotutako arautegian aurreikusitako aurrerapenarekin, hasteko ordua, zein joko-eremutan jokatu den eta bere taldearen kolore ofizialak jakinaraziko dizkiete.

Partidua jokatzeko duen klub bakoitzak honetarako Klubeko Ordezkeri bat esleitu beharko du. Era berean, Klub lokalak ala, bere kasuan, partiduen antolatzaileak Joko-eremuko Ordezkeri bat izendatuko du. Ordezkeri guztiek funtzio horretarako dagokion federazio lizentziarekin kontaktu beharko dute.

12. ART.

Partidu ofizialak, onartutako lehiaketa egutegian finkatutako datetan eta joko-eremuetan jokatu beharko dira.

Federazioak, interesdunek adostasunez hala eskatzeagatik, partiduen hasierarako adierazitakoari dagokionez gutxienez 3 aste lehenago, data ala joko-eremuaren aldaketa baimendu ahal izango du eta Diziplinazko Batzorde ala eskumeneko organoari aldaketaren onarpena eskatu beharko zaio.

Edozein kasutan Diziplinazko Batzordeak ezinbestean atzerapenak onartu ahal izango ditu.

13. ART.

Partidu guztietan lehiatzen duten taldeak joko-eremuan partiduen hasierarako adierazitako ordua baina bost minutu lehenago aurkeztu beharko dira, behar bezala



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

ekipatuta. Epaille jaun/andrearen ustetan desegokia litzatekeen inolako lerrokatzerik ez du onartuko.

14. ART.

Epaille jaun/andreak, eskumenaren arabera, partiduaren hasierarako adierazitako orduari dagokionez epe bat eman ahal izango du, gehienez 15 minutuko iraupenekoa. Epe hori pasatakoan, aurkeztuko ez liratekeen talde ala taldeen ez agertzea adieraziko litzateke.

Joko-eremuan legokeen taldeak agertu ez denari itxarotea eskatuko balu, epaille jaun/andreak epe hori hedatu ahal izango du, egokitzen jotzen badu.

15. ART.

Partidu bat behar bezala hasteko, beharrezkoa da joko-eremuan egotea, jokatzeko behar bezala ekipatuta eta prestatuta, gutxienez talde bakoitzerako hamaika jokalaria, jokoaren modalitateak jokalaria partaideen kopuru handiagoa aurreikusten duenean izan ezik. Horietatik, gutxienez bost antolatutako melean lehenengo postuetan jokatzeko prestatuta egon beharko dira.

Epaille jaun/andreak ondoren iristen diren jokalariei joko-eremuan sartzeko baimena emango diete, talde bakoitzarentzat arautegiaren arabera kopurua osatu arte, betiere partiduaren hasieran Aktaren barne hartu direnean eta dagozkien lizentziak aurkezten dituztenean ala arautegiaren arabera identifikatzen direnean.

Jokoa hasitakoan, taldetako bat hamaika jokalaria ala dagokion modalitatearen arautegiaren arabera kopurua baino gutxiagorekin geratzen bada, hori ez da eragozpena gertatuko partidua amaitu arte modu normalean jarraitu ahal izateko, betiere epaille jaun/andrearen ustetan jokalaria jaun/andreen segurtasuna arriskuan jarriko lukeen ageriko urritasunik ez dagoenean eta lehenengo ilaran postu horretarako entrenatutako eta prestatutako hiru jokalaria jaun/andre kokatzen direnean.

Edozein kasutan, Joko Arautegiak ala partiduetarako lehiaketaren arautegiak ezartzen duena kontuan hartuko da, adina ala joko-modalitatearen arabera.

16. ART.

Partidu batean bere uniformeak hain berdinak ala antzekoak izateagatik nahasketa eragin ahal duten bi Klub elkarren aurka suertatzen direnean, etxetik kanpo jokatzeko duen taldeak bere uniforme oso ezberdin batengatik aldatuko du.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

Partidua joko-eremu neutralean jokatzen bada, kidetze modernoena duen Klubak aldatuko du uniformea, aplikagarria den arautegiak beste arau bat ezartzen duenean izan ezik.

17. ART.

Partidua antolatzen duen Klubari dagokio joko-eremua behar bezala seinalezatua izatea, arautegiaren araberako banderatzokekin, eta arautegiaren araberako ezaugarriak dituzten jokorako beharrezkoak diren baloi homologatuak eskuragarri izatea.

Joko-eremu neutralean ospatzen diren partiduetan, talde bakoitzak arautegiaren araberako bi baloi eraman beharko ditu, jokorako prestatuta. Taldeetako edozeinek baloi akastun baten ordezea proposatu ahal izango du eta Epailea izango da horri buruz ebazten duena.

Joko-eremu propioa bezala hartuko da, xede guztietarako, Klubek berearen ordeza erabiltzen dutena zirkunstantzia bereziak direla eta beste batean jokatu behar izaten dutenean, zeini partidua antolatzea baitagokio.

18. ART.

Partiduetan dagokion Joko ala lehiaketaren Arautegiak baimendutako jokalarien aldaketak baimenduko dira. Edozein kasutan beharrezkoa izango da beste batzuk ordeztzen dituzten jokalariek partiduen Aktan adierazita egotea, partidua hasi aurretik, eta aldaketetarako nahiz ordezkapenetarako ordezeko bezala baimendutako jokalarien kopuruaren barnean.

Ordeztua izan den jokalaria batek ezin izango du, inola ere, partiduan zehar berriro jokatzera sartu; egingo balu, lerrokatze desegokia kontsideratuko da, Jokoaren Arautegian zehazten diren kasuetan izan ezik.

Lehenengo ilarako batek odollik gabeko lesio bat jasango balu eta joko-eremutik kanpo artatu behar izango balitz, epailea segurtasun motiboengatik, bere taldeko kapitainarengana zuzenduko da postu hori betetzeko behar adina entrenatutako ala prestatutako beste jokalaririk ba al duen jakiteko; postu hori betetzeko jokalaririk ez balego, kapitainak aurrelari bat esleituko du joko-eremua utzi dezan eta epaile jaun/andreak joko-eremuan ordezeko lehenengo lerrokoa sartzea baimenduko du. Eginiko aldaketa amaituta egongo da lesionatutako jokalaria berriro sartzen denean ala aldaketa hau behin betikoa denean. Une horretan halaber aldi baterako joko-eremua utzi duen aurrelaria berriro sartuko da.

Prozedura berdina jarraituko da lehenengo lerroko bat aldi baterako kanporatua izaten denean.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

II. KAPITULUA - JOKO-EREMUAK

19. ART.

Lehiaketa ofizialetako partiduetan joko-eremuek eta zerbitzuen instalazio osagarriek (aldagelak, WC, botikina, etab.) Joko Arautegian ala dagozkion arautegietan ezartzen diren baldintzak izan beharko dituzte. EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAK eginiko joko-eremuen ikuskaritza eta homologazioa xede horretarako arautegiaren arabera burutuko dira.

20. ART.

Joko-eremuak behar bezala markatuta egon beharko dira, halaber marka-lerroetan banderatxo malguak, baloi geratua, erdi-gunea eta 22 metro barne izanik, eta orokorrean segurtasun arau funtsezkoenak bete beharko dira, esaterako partiduen hasieran makilen oinarri eta ur-hartune behar adina babestuekin kontaktzea, Joko-Arauek honi dagokionez ezartzen dutenaren arabera.


21. ART.

Joko-eremua eta publikoarentzat destinatutako gunearen artean perimetro guztian zehar babes-gune bat egongo da zeinek alboetan gutxienez 3,50 metro eta hondoetan 2.00 metro izango baititu. Gune honek joko-eremuaren antzeko lurzoria izango du. Bi gune hauek bereizten dituen oztopo ala elementu fisikoren bat egon beharko da.

Salbuespen modura, EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAK joko-eremuak homologatu ahal izango ditu, ala Joko-Arautegian nahiz Arautegi honetan finkatutakoekiko dimentsio ala ezaugarri ezberdineko partiduen ospakizuna baimendu ahal izango du.

22. ART.

Ezinbesteko baldintza da, instalazio osagarri bezala, joko-eremu guztiek talde lehiakide bakoitzarentzat eta epaile jaun/andreen taldearentzat aldagela independenteak izatea, behar bezala bermatuak eta zainduak, konketa, dutxa eta gainerako osasun zerbitzuekin hornituta, zeinen artean Botikina baitago, hori guztia higiene baldintza egokiekin. Justifikatutako kasu berezietan lehen adierazitako baldintzak erabat betetzen ez dituzten joko-eremuak baimendu ahal izango dira, interesdunaren eskaeraren arabera.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

23. ART.

Kluben batek partidua hasi aurretik joko-eremuaren baldintza anormalak salatuko balitu, egiaztapen azterketak hau ospatu aurretik burutu beharko lirateke.

Erreklamazioa epaile jaun/andrearen arabera motibatuta balego, honek anomaliak partiduaren aurretik konpondu daitezzen beharrezko neurriak hartuko lituzke. Hori zilegi izango ez balitz, epaile jaun/andrearen ustetan, partidua ospatu egingo da ala atzeratu egingo da; atzeratzen den kasuan, Arautegi honen 47. artikuluan ezarritakoa aplikatu ahal izango da.

Edozein kasutan epaile jaun/andreak Klubetako bi ordezkari jaun/andreak entzuteaz gainera bere iritzia aktan ebatzi ala adierazi beharko ditu.

III. KAPITULUA –LEHIAKETA OFIZIALAK


24. ART.

EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAREN eskumeneko organoek bere lehiaketetako arautegi propioak onartuko dituzte, zeinek ondorengo alderdiak arautu ahal izango baitituzte:

- a) Talde bakoitzaren arabera lizentzien gutxienerako kopurua.
- b) Inskripzio datak.
- c) Inskripzio kuoten zenbatekoa eta ordainketa modua nahiz gainerako kontzeptu ekonomikoak.
- d) Jokalarien ordezkapenak arautzea.
- e) Klub bereko talde ezberdinetako jokalariek parte hartzeko arauak.
- f) Lehiaketarekiko kategoria ezberdinetakoak diren jokalariek parte hartzeko arauak.
- g) Atzerriko jokalariek parte hartzeko arauak.
- h) Partiduak ospatzeko datak, orduak eta tokia jakinarazteko epeak eta modua.
- i) Emaitzak jakinarazteko epeak eta modua.
- j) Derrigorrezko osasun zerbitzuen laguntza.
- k) Partiduak hasteko ordutegia.
- l) Joko-eremu eta instalazio osagarrien ezaugarriak.

25. ART.

Jokatzeko sistemaren arabera, lehiaketak kanporaketen ala puntuaren arabera izan ahal izango dira.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

26. ART.

Kanporaketen arabera jokatzeko diren lehiaketetan galtzen duen taldea honetatik kanporatu egingo da, eta puntuak arabera jokatzeko diren sailkapena lehiatzen duten Klub bakoitzak lortutako arabera burutuko da, ondorengoari jarraiki:

- + 4 puntu irabazitako partidu bakoitzarengatik.
- +2 puntu berdindutako partidu bakoitzarengatik.
- 0 puntu galdutako partidu bakoitzarengatik.

Partiduan lau entsegu ala gehiago lortzen dituen taldeari bonus-eko puntu bat erantsiko zaio.

7 ala puntu gutxiagoren diferentziarekin partidua galtzen duen taldeari bonus-eko puntu bat erantsiko zaio.

Puntuak araberako lehiaketetan, ez agertze, uko egite, lerrotze desegoki ala zigorren kasuan zeinengatik taldetako bat 7-0 emaitzarekin irabazlea gertatzen baita, eskumeneko organoaren erabakiaren arabera, talde irabazleak 5 puntu lortuko ditu, galtzailea den taldeak puntu bakar bat ere lortuko ez duen bitartean; halaber sailkapenean lau puntu kenduko zaizkio.


27. ART.

Klub bati bere joko-eremuan antolatzea dagozkion lehiaketa ofizialeko partiduak hala inskribatuta duen hartan jokatu beharko dira, izango balute, eskumeneko organoak beste batean jokatzeko baimenduko lukeenean izan ezik.

28. ART.

Lurralde Federazioek antolatutako lehiaketei dagokionez, bere emaitzek EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAREN sailkapena ala lehiaketetarako baldintzak eragiten dituztenean, honen arautegi eta irizpideekin egokitu beharko dira. Lehiaketa horiek aurreikusitako irizpideekin egokituko ez balira, EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAK, EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAREN sailkapen ala lehiaketetarako baldintzen xedeak baliogabetzeko ahalmena izango du, Lurralde Federazio beraren xedeetarako bere balioari utzi gabe.

Kasu hauetan, Lurralde Federazioek EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZARA, lehiaketak hasi baino hamabost egun lehenago, hauetan parte hartzen duten taldeen erlazioa, bere lehiaketako egutegia eta hau zuzentzen duten arautegiak bidali beharko dituzte.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

Era berean, jardunaldi bakoitzaren ondorengo astearen barnean, halaber EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZARA partiduetako aktak eta Kirol Diziplinazko Batzordearen bileretako akten kopiak bidali beharko dituzte.

Dagokion lehiaketa arautegian espresuki ezartzen denean izan ezik, Klub bateko talde batek baino gehiagok ezin izango du Lehiaketa eta kategoria berdinean nahiz denboraldi berdinean parte hartu.

29. ART.

Kategoria nazional ezberdinetako igoerak eta jaitsierak EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAK lehiaketa bakoitzerako ematen dituen arauak kontuan hartuta burutuko dira.

Edozein taldek, aurreko artikulua azkeneko paragrafoa aplikatu izanagatik, kategoria igotzeari uko egin nahi izango balio ala bertatik jaistera behartuta egongo balitz, 34. Artikuluan ezarritakoa kontuan hartuko litzateke.

Denboraldi berdinean talde bat kategoriaz jaitsiko balitz, klub bereko beste talde batek ez du horretara igotzeko aukerarik izango.

IV. KAPITULUA – JOKALARIEN LERROKATZEA

30. ART.

Klub bateko jokalaria bat partidu ofizialetan behar bezala lerrokatu ahal dadin, beharrezkoa izango da:

1. Lerrokatzen duen Klubaren lizentziarekin kontaktzea, ala hau arautegiaren arabera bideratua izaten egotea.
2. Bere Nortasun Agiri Nazionala ala pasaportearen federazio lizentziarekin batera ekartzea, partiduaren aurretik epaile jaun/andreari aurkeztu ahal izateko. Bere adinarenagatik NAN dokumenturik ez badu, bere nortasuna zalantzarik gabe bermatuko duen dokumentu ofiziala (Familia ala Eskola Liburua) aurkeztuko da.
3. Bere adina indarrean dauden federazio xedapenek eskatzen dutena izatea.
4. Aurretiazko osasun ebazpenaren arabera gaitasun fisikorik gabea adierazi ez izana.
5. Bere federazio lizentziaren etenaldiaren eraginpean ez egotea.



6. Denboraldi berdinean lehiaketa berdineko inolako partidu ofizialetan kategoria berdina ala goreneko beste klub bateko talde batean lerrokatua ez egon izana, lehiaketak berezkoak dituen arautegietan aurreikusitako kasuetan izan ezik.


7. Jardunaldi berdinean edonolako kategoriako partidu ofizialean bere Klubak lerrokatu ez izana. Xede hauetarako, Jardunaldiagatik ulertzen da Lehiaketako Egutegian bereizita dagoena, zein normalean larunbatetan ala igandetan ospatzen baita. Hala ere, zirkunstantzia bereziak direla eta halaber eskumeneko Federazioaren arabera jardunaldiak egun jarraietan ala astea baino denbora-epe laburragoetan programatu ahal izango dira, egutegien amaierako epeak betetzeko beharrezkoa izango balitz.

Jokalari bat ez da lerrokatua izan dela kontsideratuko –baina kirol diziplinaren xedeen eta jokoan parte hartzearen xedeen mendean egongo da- joko-eremuko bere presentzia, besterik gabe, zauri odoltsu bat estaltzen zitzaien bitartean kide bat aldi baterako ordezteagatik ala kide bat jokatik aldi baterako kanporatua izan denean lehenengo lerroko postu bat betetzeagatik izan bada. Aldi baterako ordezkapen honek behin betikoa izaten amaitzen badu, zauria jasan duen jokalaria joko-eremura itzultzen ez delako, aurreko paragrafoak aipatzen duen jokalaria kirol jardunaldian partaidetzaren xedeetarako lerrokatua izan dela kontsideratuko litzateke. Epaile jaun/andreek zirkunstantzia hauek aktan idatziko dituzte.

8. Atzerriko jokalarien arloa; klubez aldatzea; haurrek kadeteen lehiaketetan parte hartzea; kadeteek gazteen lehiaketetan parte hartzea, gazteek senior lehiaketetan parte hartzea; eta parte hartzen duen lehiaketetako klub bereko senior jokalaria jaun/andreentzat dauden mugei dagokionez arautegietan izaera bereziarekin ezartzen den beste edonolako eskakizun betetzea.
9. Artikulu honetako 1etik 4ra bitarteko eskakizunak behar bezala bete ala egiaztatuko ez balira, partiduko epaile jaun/andreak honetan jokalaria jaun/andreen partaidetzarik ez luke onartuko. Lizentziarik ekarriko ez balitz, bere pasaporteala ala NAN dokumentuaz gainera Aktan jokalaria honentzat gordetako tokian sinadura erakutsi beharko litzateke. Hori guztia artikulu honen barne dauden edonolako eskakizun beteko ez balitz lerrokatze desegokia adierazteko aukerari utzi gabe. Halaber Taldeko Ordezkarri jaun/andreak jokalaria jaun/andrea partiduan parte hartzeko prestatuta ez dagoenean dagozkion erantzukizunak bere gain hartuko ditu.

31. ART.

Lehiaketa ofizialeko partidu batean arautegiaren arabera honetan parte hartzeko baimenik izango ez lukeen jokalaria jaun/andre bat lerrokatzen denean, ala bere baimena modu irregularrean eskuratzen denean, ala jokalaria jaun/andre bat beste batengatik modu desegokian ordeztzen denean ala ordeztua izan den jokalaria bat partidu berdineran berriro itzultzen denean (Jokoaren Arautegian aurreikusitakoa izan ezik), jokalaria hori aurkeztu duen taldea zigortuko da, ondorengo moduan:



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

- a) Arau-haustea partidu bakarreko kanporaketetan ala berdinketa hausteko partidutan egiaztatzen bada, talde arau-hausleak partidua galdu duela kontsideratuko da.
- b) Arau-haustea partidu bikoitzeko kanporaketetan gertatzen bada, talde arau-hausleak kanporaketa galdu duela kontsideratuko da.
- c) Partidua puntuen araberrako lehiaketakoa bada, halaber talde arau-hausleak partidua galdu duela kontsideratuko da, eta sailkapenean lau puntu deskontatuko zaizkio.

Kasu hauetan, irabazitakoak kontsideratzen diren partiduak zazpi zero (7-0) emaitza dutela kontsideratuko da, talde arau-hausleak emaitza handiagoarengatik irabaziko lukeen kasuan izan ezik.

Artikulu honetan azaltzen diren arau-hausteengatik jarritako salaketak, interesdunek hurrengo asteartean 24ak baino lehenago aurkeztu beharko dituzte, larunbatean ala igandean lehiatutako partiduen kasuan, ala 48 orduren epean beste egun batean lehiatzen diren kasuan, lehiaketaren arautegiak espresuki epe ezberdina ezarri ahal izateari utzi gabe.

Artikulu honetan aurreikusitako ondorioez gainera, lerrokatze desegokiaren arduradunak Arautegi honetan aurreikusitako zigorren mendean egongo dira.

32. ART.

1. Jokalari atzerritar ala Federazio atzerritarren batetik datozen jokalarientzako lizentzien emateak aplikagarriak diren arautegiekin lotutako arauen arabera burutuko dira, EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA kidea izango den kirol organismoetatik datozenak barne. Jokalari jaun/andrea bere jatorrizko federazioan zigortuta egongo balitz, ezarritako epea betetzen duen amaiera dataren egiaztapena ekarri beharko luke, eta klub berrian lerrokatua izan aurretik hau betetzea eskatuko litzaioke.

2. Lehiaketaren arautegi bereziak beste arauen bat ezartzen duenean izan ezik, EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAK antolatutako lehiaketen xedeetarako ez dute jokalari atzerritarren kontsiderazioa izango Euskal Selektzioarekin lerrokatuak izan diren haiek, aplikagarriak diren nazioarteko arautegien arabera.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY

“Txuri Urdin” Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24

20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659

E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org

Web: www.euskadirugby.org

V. KAPITULUA – UKO EGITEAK, EZ AGERTZEAK ETA HEDAPENAK

33. ART.

Beste lehiaketa ala denboraldi batzuetan sailkatu izanagatik lehiaketa ala kategoria batean parte hartzeko eskubidea izango duten taldeek, eskubide horri uko egin ahal izango diote. Uko egite hori EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZARI idatziz eta modu frogagarrian jakinarazi beharko zaio dagokion lehiaketan finkatzen den epean. Horretarako eperik finkatuko ez balitz, uko egitea Batzorde Teknikoak lehiaketako partiduen zozketarako finkatutako data baino aste bat lehenago burutu beharko litzateke.

Epe hauetatik kanpo eginiko uko egiteak, parte hartzeko eskubidea zuen kategoria eta berehalako hurrengo gorena galtzea inplikatu du.

34. ART.

1. Klub batek kategoria bati uko egiten dionean berehalako hurrengo beheragokora pasako da eta bere plaza sailkapen hobeagoaren arabera jaistea suertatuko litzaiokeen eta berehalako beheragoko kategorian hobekien sailkatutako taldearen arteko kanporaketaren irabazleak beteko du. Talde hau ondorengo beheragoko kategorian plaza betetzera pasako da, betiere kategoria ala maila berri honetan ezartzeak honetako talde partaideen kopuruari eragiten ez badio. Berehalako goreneko kategorian baja eragiten duen taldeak utzitako hutsunea beheragoko kategorian ala maila horretako talderen batekin estaltzea ez lortzea gertatu ahal liteke. Kasu honetan borondatezko baja eragin duen taldea hurrengo beheragoko beste kategoria batera pasako da eta horrela hurrenez hurren.

Uko egiten duen talde hau multzoka banatuta dagoen lehiaketa batera pasatzen bada, bere tokia uko egiten duenari dagokion multzoan hobekien sailkatutako taldeak beteko du. Aurreko paragrafoan adierazten den kanporaketa maila honetako hiru taldeak talde horri dagokion multzokoak balira soilik lehiatuko litzateke.

Igoera ala jaitsiera fase bat lehiatu izan balitz, fase horretan lortutako sailkapena izango da atal honen xedeetarako kontuan hartuko dena.

2. Ez ohiko zirkunstantziak direla eta (besteren artean talde bat goreneko kategorian batera igotzea, aurretiaz plaza modu automatikoan bere kategoriako beste bati ala beheragokoari dagokionik ezarrita ez dagoenean; ala kategorian batean taldeen kopurua hedatzea, aurretiaz plaza berriak betetzeko sistemarik ezartzen ez denean, kontsideratu ahal izango dira) Lehiaketa batean plaza hutsak sortzen direnean, hauek jaistea legokiekeen eta beheragoko kategoriaren posturik hoberenetan sailkatutako haien arteko kanporaketetako irabazleek beteko dituzte, igotzeko eskubidea lortu dutenak kanpoan geratu direnean.

Bi kategorietako taldeen arteko sustapen kanporaketa jadanik aurretiaz ezarrita egoten direnean, biak hau egitetik libre geratuko dira, maila gorenera pasako baitira. Kasu honetan 1. paragrafoan aurreikusitako kanporaketa ez da lehiatuko. Kategorian horren sailkapenaren arabera dagokion hurrengo kategoriara jaitsiko litzateke.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

Sustapenaren eragina kategorian horietako talde batzuek jasango balute eta gorenko kategorian hainbat plaza huts egongo balira, bi kategorietan hobekien sailkatutako eraginek aurreko paragrafoan adierazitakoari dagokionez jarraipeneko onura eskuratuko lukete (hautako bakoitzeko batek). Plaza huts bakarra eta sustapeneko hainbat kanporaketa egongo balira, kategorian bakoitzeko batek eskuratuko luke onura (horietako bakoitzean hobekien sailkatutakoek). Sustapeneko gainerako eraginek kanporaketa hau orain beste kategorian suertatzen den sailkapenaren hurrenkera berrian dagokionarekin lehiatu beharko dute.


Plaza hutsak egongo balira eta kategorian horretan jaitsiera ala sustapenarekin eraginiko talderik egongo ez balitz, hauek beharagoko kategorian hobekien sailkatutako taldeek beteko lituzkete.

1 eta 2. ataletan adierazten diren kasuetan nagusituko den eta kontuan hartu behar den irizpidea lehiaketaren amaierako sailkapenean bere postuaren arabera kategorian galduko lukeen taldeak aurretiaz beharagoko kategoriako talde batekin sustapeneko kanporaketa bat lehiatu gabe denboraldi berdinean ala hurrengo hasi aurretik, biak leudekeen kasuan, ezin ahal izango lukeela hura berreskuratu litzateke. Aurretiazko sustapenaren eragina duten taldeak honetatik libre geratu ahal izango dira egoera aurreko bi paragrafotan adierazitakoa bezalakoa izaten denean.

3. Kategoriaz igotzeko eskubidea lortu duen talde batek honi uko egongo balio, onura bere kategoriako sailkatutako hurrengo taldera pasako litzateke. Maila gorenetik jaitsitako taldeek hutsune hori betetzeko onura, igotzeari uko egiten dion taldearen kategorian igoeraren onura eskuratu nahi duen ala ahal duen talderik ez dagoenean eskuratu ahal izango dute. Hala ere, talde baten jaitsiera bere taldeko plaza maila gorenko kategorian batetik jaitsitako beste talde batek bete duelako gertatu denean, taldeen kopurua murriztera behartuz, arrazoi horregatik jaitsitako taldea izango da igoerari uko egingo dionaren plaza beteko duena. Zirkunstantzia horretan hainbat talde egongo balira, sailkapen hoberena lortu izango lukeena hobetsiko litzateke.

4. Kanporaketen arabera lehiaketetan uko egiteak ala ez agertzeak beste Klubaren sailkapena erabakiko du, amaierako partiduan izan ezik, zeinen ospakizuna ezinbestekoa den denbora-epea kontuan hartuta atzeratuko baita, eta amaierako partidu horretara uko egitea ala ez agertzea egiten duenak aurretiazko kanporaketen kanporatutako taldeak izango du sarbidea.

5. Uko egitea ala zigorraren arabera kanporaketa puntuen arabera lehiaketa baten garapenean zehar gertatzen bada, bertan parte hartu ez izana bezala kontsideratuko da, eta parte hartu izango lukeen partidu guztietako emaitzak ezabatuko lirateke. Hurrengo Artikuluan xedatutakoari utzi gabe.



Artikulu honetan aurreikusitako partiduak ospatzen direnean, hau lehiatuko lukeen klubarekin lizentzia izango luketen eta hain zuzen denboraldia amaitu baino lehen dagokion denboraldian sustapenari bidea emango liokeen lehiaketan parte hartzeko baldintzak beteko lituzketen jokalaria berdinek lehiatu ahal izango lituzkete. Xede horietarako, legokiekeen eta sustapena jokatuko lukeen kluba ez den klub batekin lizentzia eskatu izango luketen jokalariek, honekin aldi baterako lizentzia bat sinatu ahal izango dute, honetan parte hartzeko helburu soilarekin, horrek lizentziaren bikoiztasunik suposatu izan gabe. Jokalari horren klub berriak honek bere aurreko klubaren sustapeneko partiduetan parte hartzea zilegi egin beharko du.

35. ART.

Talde bat partidu ofizial batera agertzen ez bada, ondorengo eraginak jasango ditu:

1. PUNTUEN ARABERAKO LEHIAKETAK

A. Dagokion Federazioak ez agertzea partiduaren ospakizunerako adierazitako orduarekiko gutxienez 72 ordu lehenago idatziz jakinarazi beharko du.

Agertzen den taldea 7-0 emaitzarekin partiduaren irabazlea kontsideratuko da. Agertu ez den taldearen sailkapenean bi puntu deskontatuko dira.

B. "A" atalean aurreikusitako modu eta aurrerapenarekin jakinarazi gabeko ez agertzea.

"A" atalean bezala jokatuko da, baina agertzen ez den taldearen sailkapenean lau puntu deskontatuko dira.

Denboraldi eta lehiaketa berdineko bigarren ez agertzeak Lehiaketatik kanporatzea eta beheragoko kategoriara jaistea suposatuko du. Arau honetatik kanpo geratzen dira Gazteen lehiaketak eta hau baino beheragoko kategoriak, bere arautegi berezian beste zerbait ezartzen den kasuan izan ezik.

II – KANPORAKETEN ARABERAKO LEHIAKETAK


A. Artikulu honetako I-A) atalak adierazten duen moduan arautegiaren arabera jakinarazitako ez agertzea:

Lehiaketatik kanporatzea, eta hurrengo denboraldian Lehiaketa horretan inskribatzeko debekua.

B. Arautegiaren arabera jakinarazi ez den ez agertzea:

Lehiaketatik kanporatzea eta hurrengo bi denboralditan Lehiaketa horretan inskribatzeko debekua.

Edozein kasutan, talde arau-hauslearen kluba arautegi ala aplikagarria den arautegi honetan aurreikusitako zigorren eraginpean egongo da.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

Ez agertzearen kasuan, I eta II puntuetan deskribatutakoetatik edozein izanda ere, talde aurkariarengan galera ekonomikoa eragiten bada, agertzen ez denak ordaindu beharko du. Horretarako, kalteak jasan dituen klubak EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZARI galera ekonomikoaren egiaztagiriak eta frogak bidaliko dizkio eta hauek Diziplinazko Batzordeak finkatuko ditu, bi klubuen alegazioak kontuan hartuta. Era berean agertzen ez den klubak federazioari modu ofizialean esleitutako federazioko arbitro eta ordezkariengan eraginiko gastuak ordaindu beharko dizkio. Halaber Arautegi honetako 97 c) artikuluan kontenplatutako isunari aurre egin beharko dio.

ART. 36

Aurreko artikulua bere osotasunean ala hein batean ez da aplikatu ahal izango Klub interesdunak Diziplinazko Batzordearen aurrean, eta partidua ospatzeko adierazitako datarekiko hurrengo bi lanegunen barnean, taldearen ez agertzea eragin duten arrazoiak eta /edo ezinbesteko zirkunstantzien ondorioz aurreko artikuluan kontenplatutako jakinaraztearekin lotutako adierazpenak bete ezin izanaren frogagiria aurkezten duenean.

Ezinbestekoak bezala ulertzen dira ustekabeko gertaerak ala ekidin ezinak gertatu diren aurreikusitakoak diren haiek.


Kasu horietan Klubak ados jarriko dira partidua zein datetan ospatu beharko denari dagokionez, eta adostasunik ez balego, data EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAREN Diziplinazko Batzordeak erabakiko luke, egutegian ez leudekeen eta lanegunak izango ez liratekeen lehenengo egunen artetik; larunbata izan liteke eta hori ezinezkoa izango balitz, lanegunak, zeinek kategoria berdina ala analogoan partidu ofizialik programatuta ez bailukete izango.

Datak ahalik eta azkarren finkatuko dira ospatu gabeko partiduak, txanda bikoitzeko lehiaketakoak badira, dagokien txanda amaitu aurretik lehiatu daitezten.

37. ART.

Talde bat partidua hasita dagoenean joko-eremutik erretiratzen bada, jakinarazi gabeko ez agertzetarako aurreikusitako eraginak aplikatuko dira.

Artikulu honen eta aurrekoen xedetarako, erretiratzea kontsideratuko da jokalariek joko-eremua multzoan uzten dutenean, banan bana ala hainbateko multzotan, baita joko-eremutik atera gabe jokatzen jarraitu nahi ez dutenean ere. Arrazoi hauetako edozeinek arautegiaren arabera denbora bete aurretik partidua eteteari bidea emango dio, Epaile jaun/andrearen erabakiaren arabera, zeinen irizpidea xede hauetarako erabakigarria izango baita, dagozkion beste hainbat zigor jartzeari utzi gabe.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY

“Txuri Urdin” Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24

20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659

E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org

Web: www.euskadirugby.org

Edozein kasutan, talde arau-hauslea aplikagarria den arautegi honetan aurreikusitako diziplinazko zigorren eraginpean egongo da, 7 – 0 emaitzarekin partidua galtzea, ala arau-haustea gertatu den uneari dagokion emaitza, hau okerragoa izango balitz.

VI. KAPITULUA – BERDINKETAK HAUSTEA

38. ART.

Partidu bakar baten arabeko kanporaketari dagokion partidu ofizial bat amaitzean berdinketa gertatuko balitz, partidua hogeita hamar minutuz luzatuko litzateke, atsedenaldirik gabeko hamabost minutuko bi ataletan banatuta, baina bigarren atalean taldeek joko-eremuaren aldea aldatuz, lehiaketari aplikatu ahal zaion arautegiak beste zerbait xedatzen duen kasuan izan ezik.

Luzapena amaitutakoan, berdinketak iraungo balu, talde irabazlea erabakiko litzateke, ondorengo irizpideak jarraian finkatuz:

- 1º). Entseguen kopururik handiena markatu duen taldea.
- 2º). Bote lasterreko ostikoen arabera tantoen kopururik handiena lortu duen taldea.
- 3º). Zigor ostikoen transformazioen arabera tantoen kopururik handiena lortu duen taldea.
- 4º). Transformazioen arabera tantoen kopururik handiena lortu duen taldea.

Hala ere berdinketak iraungo balu, kokatutako bost ostikoen serie bat jaurtitzeari ekingo zaio, talde bakoitzeko bost jokalaria ezberdinen arabera zein partidua amaitu dutenen artean hautatuko baitira; epaile jaun/andreak izena eta jaurtiketaren hurrenkera aurretiaz jakinarazi beharko ditu. Hauek talde bateko eta beste jokalarien artean aldizkakoak izango dira, epaile jaun/andreak markatuko duen tokitik, makilen aurrean, zein bost jaurtiketako seriean zehar bi taldeentzat berdina izan beharko baita; hasiera zozketaren bidez erabakiko da.

Irabazlea aldarrikatuko da serie honetako makilen artean transformazioen kopururik handiena lortzen duen taldea. Honek berdinketa ebatziko ez balu, aldizkako jaurtiketei ekingo litzaioke, talde bateko bat eta beste taldeko beste baten artean; jaurtiketen sistema honen hasiera halaber zozketaren bidez erabakiko litzateke. Jokalari jaun/andreak aurreko seriean jaurtitzen aritu direnekiko ezberdinak izan beharko dira, prozedura berri honetan jadanik guztiek jaurti izanagatik kupoa agortu den kasuan izan ezik eta jadanik egin dutenengana berriro jo behar izaten denean (lehen adierazitakoari dagokionez jaurtitzen duten jokalariek errepikatzerakoan izango duten nekearekin lotutako irizpide berdinarekin). Bi jaurtiketen serie bakoitzeko tokia bientzako berdina izango da, makilaren aurrean eta epaile jaun/andreak erabakitzen duen distantziaren arabera. Prozedura hau bi jokalari jaun/andreetako batek serie batean huts egin eta besteak asmatzen duenean amaituko da. Kasu honetan asmatu duen jokalari jaun/andreaken taldea irabazlea izango da. Hori guztia lehiaketa bereziaren arautegian berdinketa ebatzeko sistema ezberdin bat xedatzen den kasuan izan ezik aplikatuko da.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY

“Txuri Urdin” Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24

20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659

E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org

Web: www.euskadirugby.org

Gazte, kadete ala beheragokoen kategoriako Txapelketetako partiduak izaten direnean aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatuko da, luzapena lehiatu behar den kasuan izan ezik.

39. ART.

Partidu bikoitzekin ospatutako kanporaketen arabera gertatzen diren berdinketak aldeko tantoen kopururik handienaren arabera ebatziko dira; berdindutako taldeek bere artean ospatutako partiduetako bakoitzean lortutako tantoak batuz. Tantoen kopurua halaber bientzako berdina izango balitz, bigarren partiduan aurreko artikuluan ezarritako moduan bigarren luzapeneko partidua jokatu litzateke.

Luzapen hau amaitutakoan berdinketak iraungo balu, aurreko artikuluan aurreikusitako moduaren arabera makiletara kokatutako ostikoak jaurtitzeari ekingo litzaioke.

40. ART.

Berdinketak ebazteko “bonus” puntuazio sistema duten puntuen araberako lehiaketetan ondorengo hartuko da kontuan:

1.- Txanden kopuru bikoitzeko puntuen araberako lehiaketetan, hau amaitzen denean bi taldeen arteko berdinketa gertatzen bada, berdinketa ebazteko lehenengo irizpidea lehiaketan osoan zehar partidu gehien irabazi dituen taldea hobekien sailkatutakoa bezala kontsideratzea litzateke; honek berdinketa ebatziko ez balu, hau bere norgehiagokan lortutako emaitza partikularraren arabera ebatziko da, eta berdinketa horrela konponduko ez balitz tantoen ezberdintasunik handienera jo beharko da, bi taldeek parte hartu zuten eta sailkatu ziren talde guztiekin batera lehiaketa osoan lortutako emaitzak kontuan hartuta. Prozedura berri honekin ere berdinketak iraungo balu, halaber lehiaketan sailkatutako talde guztiekin lortutako aldeko tantoen batura aurkako tantoen baturarekin zatitu ondoren lortzen den koefizienterik hoberenaren arabera erabakiko da.

Prozedura berri honek berdinketa ebatziko ez balu beraien arteko partidu bati ekingo litzaioke, betiere helburua titulua lortzea, igoera lortzea, ala jaitsiera ekiditea izaten denean, aurkako kasuan ex-aequo kontsideratuko bailitzateke.

Lehiaketako tanto guztiak kontuan hartu behar diren kasuetan, ez dira inolako talderentzat kontatuko, berdinketaren emaitza izan duten taldeekin ez agertzeren bat izan duen talde baten aurka jokatu partiduetatik eratortzen direnak.

2.- Prozedura hauek berak jarraituko dira lehiaketaren amaieran bi talde baino gehiagoren artean puntuen araberako berdinketa gertatzen denean; berdindutako taldeen artean sailkapenaren hurrenkera ebazteko lehenengo irizpidea lehiaketa osoan zehar irabazitako partiduen kopururik handiena izatea litzateke. Honek berdinketa erabakiko ez balu berdindutako taldeen artean lehiatutako partidu guztietan lortutako emaitzekin sailkapen partikular bat eratuko litzateke; kontuan



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

hartu beharreko lehenengo irizpidea lortutako puntuena da, ondoren irabazitako partiduen kopurua, ondoren aldeko eta aurkako tantoen arteko diferentzia eta ondoren aldeko eta aurkako tantoen koizientea; hori guztia beraien artean ospatutako lehiaketekin lotuta egongo da. Prozedura partikular honek hauetakoren batzuen arteko berdinketa oraindik erabakiko ez balu, berdinketa zehatz hau ebazteko aurreko puntuan aurreikusitako prozedura ezberdinak jarraituko dira, Lehiaketa osoan zehar berdindutako taldeek lortutako emaitzak kontuan hartuta.

3.- Lehiaketaren amaieran sailkapenean puntu berdinak dituzten bi talde ala gehiagoren arteko berdinketa ebazteko txanden kopuru bakoitiari jarraiki puntuen arabera lehiaketetan, bere arteko emaitza partikularra ez da kontuan hartuko, 1. puntuan ezartzen denaren arabera bigarren irizpide bezala, partidu guztiak berdindutako taldeen gune neutraletan lehiatuko liratekeenean izan ezik (neutralagatik horien guztien autonomia eremutik kanpoko ulertuko da), zeinetan kontuan hartuko baita, bigarren atal bezala, beraien arteko emaitza partikularra. Sailkapenaren hurrenkera irabazitako partiduen kopururik handienaren arabera ezarriko da; ondoren tantoen diferentziarik handienaren arabera, parte hartu duten eta sailkatuko liratekeen talde guztiekin lehiaketa osoan zehar taldeek lortutako emaitza guztiak kontuan hartuta. Prozedura honekin berdinketa lortuko balitz halaber lehiaketan sailkatutako talde guztiekin lortutako aldeko tantoen batura aurkako tantoen baturarengatik zatituta lortzen den koefiziente orokorrik handienaren arabera erabakiko da. Prozedura berri honek berdinketa ebatziko ez balu beraien arteko partidu bat ala batzuk jokatzeari ekingo litzaioke, betiere helburua titulua lortzea, igoera lortzea ala jaitsiera ekiditea izaten denean, aurkako kasuan ex-aequo kontsideratuko bailitzateke.

Txanden kopuru bikoitiko lehiaketetan bezala, lehiaketa osoaren tantoak kontuan hartu behar diren kasuetan, inolako talderentzat ez da kontabilizatuko, berdinketaren emaitza izan duten taldeekin ez agertzeren bat izan duen talde baten aurkako partiduetatik eratortzen direnak.

4.- Puntuen arabera lehiaketetan zeinetan batzuekin sailkapena txanden kopuru bikoitiarekin eta beste batzuekin txanden kopuru bakoitiarekin lehiatu duten taldeak egongo bailiakete, berdinketa bere artean lehiaketa txanden kopuru bikoitiaren arabera lehiatuko luketen bi talde ala gehiagoren artean gertatuko balitz eta berdinketan lehiaketa txanden kopuru bakoitiaren arabera lehiatuko luketen beste taldeak inplikatura egongo ez balira, berdinketa artikuluko honetako 1. eta 2. ataletan jarraitutako prozeduraren arabera ebatziko da. Berdinketa bere artean lehiaketa txanden kopuru bakoitiaren arabera lehiatu duten bi talde ala gehiagoren artean edo bestela batzuekin kopuru bakoitiaren arabera eta txanden kopuru bikoitiaren arabera beste batzuekin, berdinketa ebazteko artikuluko honetako 3. artikuluan erabakitakoa aplikatuko da.



41. ART.

Tantoen diferentziaren araberako berdinketaren haustearen xedeetarako, berdindutako taldetako bati lehiaketa berdinean lerrokatze desegokiarengatik ala ez agertzeagatik nahiz bere taldea erretiratzeagatik zigorra ezarriko litzaiokeenean, zirkunstantzia hauetako bakar batek berdinketa bestearen alde ebatziko luke.

VII. KAPITULUA – PARTIDUEN ETENALDIA

42. ART.

Lehiaketako partiduak hasi aurretik eta bere garapenean zehar soilik eten ahal izango dira, ondorengo zirkunstantzietako bat gertatzen bada:

- a) Joko-eremuaren egoera txarra.
- b) Ezinbestean; hau da, ekidin ezinak diren aurreikusi gabeko ala aurreikusitako zirkunstantziak zeinek partiduaren hasiera ala jarraipena ezinezkoa bihurtuko baitute.
- c) Joko-eremua parte hartzen ez duten pertsonak zapaltzen dutenean eta honek partidua normaltasunez jarraitzea ekiditen duenean.
- d) Gertaera larriak eragingo dituzten jokalarien jarrera desegoki kolektiboarengatik eta honek partiduaren garapen normala ekiditeagatik.
- e) Partidua hasita dagoenean kopuru nahiz baldintza fisikoei dagokionez talderen bat ageriko egoera txarragoan geratzea.
- f) Joko-eremuak EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAREN eta Arautegi honen arabera Joko Arautegian adierazten diren baldintza egokiekin ez kontatzea eta anomaliak partidua hasi aurretik konpontzea ezinezkoa gertatzea.

43. ART.

Epaile jaun/andrea jadanik kirol instalazioan aurkitzen denean ala ospatua izaten ari denean partidu bat eten ahal izatea, epaile jaun/andrearen eskumen eskusiboa izango da eta aurreko artikuluan adierazitako arrazoiak interpretatuko dira.

Hala ere, ahalegin guztiak egin beharko dira partidua ospatzeko eta ez eteteko, erabateko justifikazioa dagoen kasuan izan ezik.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAK, Diziplinazko Batzordearen arabera, partidu baten ospakizuna eten ahal izango du neurri honekin partaideei dagokionez galera ekonomikoak eta arriskuak ekiditen direla kontsideratzeagatik ala ezinbestean gertatutako zerbaitengatik.

Bi kapitainek adosten badute, lehiakideak behar bezalako baldintzak dituen beste joko-eremu batera lekualdatu ahal izango dira. Talderen batek justifikaziorik gabe aldaketa onartuko ez balu 46. artikulua aplikatuko da, baina ados ez legokeen Kluba lokala izango balitz, berriro jokatzeko klub bisitariaren lekualdatze berriak eragiten dituen gastuak bere gain hartuko lituzke, hala balegokio.

44. ART.

Partiduaren hasierarako adierazitakoarekiko ordu beteko aurrerapenarekin, esleitutako epaile jaun/andreak, joko-eremuko ordezkari jaun/andrearekin batera, joko-eremura bertaratzeko betebeharra izango du hau aztertze eta dauden gabeziak zuzentzeko aginduak emateko eta bere kasuan partiduaren etenaldia agintzeko.

Klub partaideak epaile jaun/andrearen independentzia eta segurtasuna babestera behartuta egongo dira hau kirol esparrura iristen denetik honetatik irteten den arte.


45. ART.

Diziplinazko Batzordeak ala lehiaketaren arautegian esleitutako federazio organoak partidu bat atzeratu ala hau ospatzeko tokia aldatu ahal izango du atzerapena ala aldaketa Arautegi honen arabera justifikatuta dagoela onartuko balu. Atzerapen ala toki aldaketa hau talde partaideari eta esleitutako arbitroari ahalik eta denbora-epe laburrenean jakinaraziko zaie.

Toki eta/edo dataren aldaketaren baimena bi klubek eskaera adostasunez burutzen dutenean hitzartuko da, biek idatziz eginiko eskaeraren bidez, gutxienez partiduaren data baino hiru aste lehenago, lehiaketaren arautegiak epe ezberdin bat ezartzen duenean izan ezik. Edozein kasutan, partaideek ala EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAREN eskumeneko organoak burututako epe horiez kanpo burututako eskaerak onartu ahal izango dira, betiere erabakia hartu behar duen organoak neurriak kalte ekonomikoak ala partaideentzako arriskuak ekiditen dituela ala ezinbestean gertatutako zerbaitek eragina dela kontsideratzen duenean.

Jakinarazpena interesdun guztiengana garaiz ez iritsi arren partidua ospatuko balitz, ospakizuna bere emaitzarekin balioduna izango da.

Arautegi honetan ezartzen denaren arabera atzeratua izan delako bere datan jokatzeko ez den partidu batean, talde lehiakideetan partiduaren data berriari dagokien Klubak emandako lizentziarekin kontaktatu duten jokalariek guztiak lerrotatu ahal izango dira, zein partidu horretan esku hartu ahal izateko arautegiaren arabera baldintzekin kontaktatzeaz gainera data berri honetan zigor, gaitasungabetze



ala federazio etenaldiaren eraginpean ez baitira egongo, federazioak berezkoa duen arautegiak beste baldintza batzuk ezartzen dituenen izan ezik.

46. ART.

Hasi aurretik partidu bat atzeratzen den kasuan 42. Artikuluaren arabera, osorik ospatu behar da, Klub antolatzaileari egotzi ahal zaizkion f) atalean kontenplaturako arrazoiengatik izan ezik; horrek klub arduradunarentzat 7-0 emaitzarekin partidua galtzea dakar, sailkapenean talde aurkariari 5 puntu emanez, puntuen arabera lehiaketa bateko partidu bat izaten denean.


Etenaldia hasita dagoenean burutzen bada:

- 42. artikuluaren a) eta b) ataletan xedatutakoaren arabera, geratzen den denbora Diziplinazko Batzordeak adierazten duen egunean, tokian eta orduan jokatu da eta berriro jokatzen den egunean zigorrik ez duten nahiz etenaldiaren datan lizentzia duten jokalariek hartuko dute parte, etenaldiaren datan jokoremera bertaratutakoaren kopuru berdinarekin.
- 42. artikuluaren c) atalean xedatutakoaren arabera partiduaren geratzen den denbora jokatu da aurreko paragrafoak adierazten duenaren arabera betiere inbasioa Klubetako baten jarraitzaile ala kideei egotzi ezin ahal zaienean.
- Klubetako bati egotzi ahal zaion c) atalean ala 42. artikuluaren d) ala e) ataletan xedatutakoaren arabera, partidua 7-0 emaitzarekin galtzea ala legokeen tanteoarekin, hura okerragoa izango balitz.

Bi Klubei egotzi ahal izango balitzaio partidua etenaldiaren unean zegoen emaitzarekin amaitutzat emango litzateke.

Partidu bat hasi aurretik ala bere garapenean zehar eteten bada eta bere ospakizuna ala jarraipena egokia izango balitz, bi klubak gehienez aste beteko epean data berriari dagokionez ados jarri beharko lirateke. Hala izan ezean, ala lehiaketa sistema dela eta partidua denbora-epe laburrean ospatu beharko balitz, Diziplinazko Batzordeak ospakizunaren data erabakiko luke.

Ahalegin guztiak egingo dira ospatu gabeko partiduen ospakizunerako data berriak, txanda bikoitzeko lehiaketei badagokie, dagokien txanda amaitu baino lehenago lehiatu daitezten. Etenaldiaren ardura duten Kluben bere aurkariengan eta jokoremuaren jabearen Kluben ala Federazioan eragiten dituzten gastuak eta kalteak asebetetzeko betebeharra dute. Ordainketa EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAN egingo dute zein kaltetuei dagokion kopurua ordaintzeaz arduratuko baita.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

47. ART.

Etenaldiaren ardura duten Klubek bere aurkariengan, joko-eremuaren jabea den Klubarengan ala Federazioarengan eragiten dituzten gastuak eta kalteak asebate beharko dituzte. Ordainketa EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAN egingo dute eta hau kaltetuari/ei dagokion/en kopurua ordaintzeaz arduratuko da.

VIII. KAPITULUA – JOKO-EREMUEN ORDENA

48. ART.

Partiduaren ordenaren ardura duten Klubak bere joko-eremutan ospatzen diren partiduak normaltasun osoz garatu daitezzen saiatzeko dira; federazio agintari, Epaille jaun/andre eta Marrazain hala nola Zuzendari jaun/andre, Ordezkarari jaun/andre, Jokalari jaun/andre eta talde bisitariaren laguntzaileei dagokionez, partiduaren aurretik, honetan zehar eta honen ondoren, adiskidetasun eta harrerak eskatzen dituen kontsiderazioak aplikatu beharko dira. Horrez gainera, kirol esparru osoan bere segurtasun fisikoa bermatzeko beharrezko neurriak hartu beharko dira.

Bestalde, Zuzendari jaun/andreak, Ordezkarari jaun/andreak, jokalari jaun/andreak, laguntzaileak eta talde bisitariaren laguntzaileak halaber federazioko Agintari, Epaille jaun/andre, Marrazain, Zuzendari jaun/andre, talde aurkariaren jokalari eta jendeari dagokionez elkarrenganako zuzenketa betebeharrak berdinak izango dituzte.

49. ART.

Partidua antolatzen duen Klubak joko-eremuaren eta Jokalari jaun/andreen nahiz Epaille jaun/andreen aldageletako antolamenduarekin lotutako zerbitzuak behar bezala bermatuta egotearen ardura izango du eta partidu bakoitzerako joko-eremuko ordezkarari bat izendatuko du.

50. ART.

JOKO-EREMUKO ORDEZKARIARI dagozkio ondorengo betebeharrak:

- a) Federazio lizentziarekin kontaktzea.
- b) Joko-eremuaren babes-guneaz arduratzea, baimendu gabekoei sarbidea eragotziaz eta bertaratutako guztien ordena mantenduz hala nola honi dagokionez Klubeko Ordezkarari jaun/andre guztiei aginduak emanez. Partiduaren aktan ordezkoak bezala azaltzen diren jokalari jaun/andre guztiek aldaketa bat



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY

“Txuri Urdin” Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24

20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659

E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org

Web: www.euskadirugby.org

ala kide bat ordezteko joko esparruan sartzeko aukera izatea, epaile jaun/andreak hala baimendu duenean.

c) Epaile jaun/andrea joko-eremura bertaratzen denean bere aurrean aurkeztea eta honek jakinarazten dizkion aginduak betetzea.

d) Halaber partidua hasi aurretik kapitain jaun/andre eta Klubetako Ordezkarri jaun/andreen aurrean aurkeztea.

e) Ordena bermatzeko beharrezkoak diren bezainbat neurri hartzea, partiduaren garapen normala erraztea eta edonolako gertaera ekiditea.

51. ART.

KLUBEKO ORDEZKARI JAUN/ANDREARI dagozkio ondorengo betebeharrak:

a) Federazio lizentzia izatea.

b) Kanpoalde eta babes-guneaz arduratzea, bertaratutako jendearen ordena bermatzeko neurriak hartuz, bereziki Klubeko kideenak.

c) Partidua hasi aurretik bere Klubak Arautegi honetako 17. Artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzea.

d) Epaile jaun/andreari partidua hasi aurretik jokalaria jaun/andre, Teknikari jaun/andre eta bere Klubeko Marrazain jaun/andrearen lizentziak entregatzea, horiek guztiak partiduan parte hartzeko prestatuta daudela egiaztatuz, baita Arautegi honetako 30. artikulua eskatutako dokumentazioa ere, eta Aktan bere Klubaren lerrokatzeari dagokion atala betetzea.

e) Akta sinatzea eta partiduaren amaieran Jokalari jaun/andre, Teknikari jaun/andre eta Marrazain jaun/andrearen lizentziak jasotzea, Epaile jaun/andreak gordetzen dituenak izan ezik.


52. ART.

Jokoan parte hartzen duten taldeetako kapitainek partiduaren aurretik akta sinatuko dute eta bere jokalarien lerrokatzea onartuko dute.

Partiduaren hasieratik aurrera bere taldearen ordezkapen bakarra eratzen dute; bere jokalari jaun/andreei aginduak emango dizkiete, epaile jaun/andrearen eskakizunak beteko dituzte eta hau informatuko dute; halaber taldeko gainerakoei dagokiona transmitituko diete.

53. ART.

Partidu baten garapenean zehar joko-eremuan talde bakoitzean aldi berean parte hartu ahal duten jokalaria jaun/andre eta epaile jaun/andreen sarrera baino ez da onartuko.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY

“Txuri Urdin” Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24

20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659

E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org

Web: www.euskadirugby.org

Era berean, partiduaren ospakizunean zehar taldetako masajista jaun/andreak Joko-eremuko Ordezkari jaun/andre, Osasun Zerbitzu eta Agintaritzaren Agenteak baino ezin izango dira babes gune perimetralean egon. Halaber bermatutako argazkilariak eta Telebistako kamerak egon ahal izango dira. Epaileak partiduaren martxa egokirako egokitzen jotzen badu, pertsona hauetako batzuk babes-gunea utzi dezaten agindu ahal izango du eta lesionatuak artatzeko egokitzen jotzen duenean joko-eremuan masajista jaun/andreen sarrera baimenduko du.

Gainerako guztiek publikoarentzako destinatutako gunean egon beharko dira, entrenatzaile jaun/andre eta ordezeko jokalaria jaun/andreak barne, zein talde bakoitzerako gordetako gunean kokatuko baitira eta bi taldeak albo berdinean kokatuko dira. Salbuespen bezala, epaile jaun/andreak talde bateko ala bi taldetako teknikari jaun/andre eta jokalaria jaun/andreak beste toki batean jartzeko baimendu ahal izango du, esleitutakoan larritasun bereziko eragozpenak ala nahasmenduak gertatu ahal liratekeela uste badu. Beste bat ordeztuko duen jokalaria jaun/andreak aldaketa ala ordezkapenaren kasuan soilik izan ahal du sarbidea; erdiguneko linearekiko ahalik eta hurbilen dagoen tokitik joko-eremuan sartzeko epailearen baimenaren zain egongo da. Bi taldeak albo berdinetik sartuko dira. Masajista, Joko Arautegian ezartzen diren baldintzak betetzen direnean sartu ahal izango da. Lehenengo atala amaitzen denean, epaile jaun/andreak baimena eman ahal izango du teknikari jaun/andreak bere taldeak artatu ditzaten joko-eremuan sartzeko, beste jokalaria batzuk ordeztu ahal dituzten ordezkari jaun/andreak barne. Eskumeneko Federazioak babes-gunean sartzea ala entrenatzaile jaun/andreak nahiz talde teknikoa beste toki batean kokatzea zein beste baldintzetan baimentzen duen erabaki ahal izango du.

IX. KAPITULUA – EPAILE JAUN/ANDREAK

54. ART.

Epaile jaun/andreei dagozkie ondorengo betebeharrak:


a) Federazio lizentzia izatea.

b) Joko esparruan gertatzen diren gertaeren Epaile jaun/andre bakar bezala, bere garapena ahalik eta normaltasun handienarekin gertatzea bilatuko da eta horretarako egokitzen jotzen diren erabakiak hartuko dira.

c) Joko esparruan ordu beteko aurrerapenarekin aurkeztea; honen egoera egiaztatzeko joko-eremuko Ordezkari jaun/andreakin elkarlanean arituko da; bere agintaritzak eta ordezkariak une horretan hasi eta kirol instalaziotik irteten den arte iraungo du.

d) Partearen eskakizunaren arabera jokalaria parte hartzaile guztien identitatea zehatz mehatz egiaztatzea.

e) Jokalarien ekipamenduaren egokitasuna egiaztatzea.



f) Partidua zuzentzea eta jokoaren arauak betearaztea; arau-haustearen kasuan hau geratu egingo da.

g) Akta alderdi guztien eta bakoitzaren aldetik modu egokian betetzen dela egiaztatzea.

55. ART.

1. EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAK antolatutako lehiaketa ofizialetarako epaile jaun/andreak Epaile jaun/andreen Batzordeak esleituko ditu, bere Arautegian finkatutako arauen arabera. Alboko Epaile jaun/andreak Federazioak esleitu ahal izango ditu, egokitzat jotzen bada, ala hori ezean talde lehiakide bakoitzeko bat esleitu beharko da, betiere lizentzia dutenean eta epaile jaun/andreak onartzen dituenen. Beharrezkoa izango balitz, Epaile jaun/andreak Kapitain jaun/andreari partiduan parte hartuko dutenen artean bere Taldeko jokalaria jaun/andreraren bat Marrazain jaun/andre bezala esleitzea eskatu ahal izango dio.

2. Partidu ofizial bat zuzentzeko esleitutako epaile jaun/andrea bere hasierarako adierazitako orduan joko-eremuan ez balego, hau Joko-eremuan presente dagoen federazio lizentzia nazionalarekin kontaktzen duen Epaile jaun/andreak zuzenduko du.


3. Joko-eremuan federazio lizentzia nazionala duen Epaile jaun/andre bat baino gehiago baleude eta taldeak ados jarriko ez balira, talde bakoitzak bat esleituko du eta, hauen aurrean, partidua zuzendaritza zozketatuko da.

Federazio lizentzia nazionala duen Epaile jaun/andrerik ez balego eta bertan federazioko autonomia lizentzia duten Epaile jaun/andreak soilik egongo balira, federazio lizentzia nazionala duten Epaile jaun/andreentzat adierazitako arau berdinak jarraituko lirateke.

Epaile jaun/andrerik ez balego, kapitain bakoitzak bere ustetan prestatuta dagoen pertsona bat proposatuko du eta aurretiazko zozketarekin, partidua zuzenduko duena esleituko da.

4. Ofizialki esleitutako Epaile jaun/andrerik ez egon izanaren aitzakiarekin taldeek ezin ahal izango dute partidua jokatzeko ezezkorik eman, galtzailatzat jotzen duen zigorraren kasuan izan ezik.

5. Joko-eremu batean dagoen inolako Epaile jaun/andrek ezin izango du partidu bat zuzentzeko ezezkorik eman, lesionatuta dagoenean, ala berehala partidu bat zuzentzera doanean izan ezik.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

56. ART.

Partidu baten zehar Epaile jaun/andreak ezingo balu, edonolako arrazoiren batengatik, hau zuzentzen jarraitu, aurretiazko zozketaren arabera Alboko Epaileetako bat hau ordezteko esleituko litzateke, hauek dagokion Epaile jaun/andreen batzordeak partidu horretarako esleitutako Epaile jaun/andreak izango balira, Epaile jaun/andreen Batzordeak hurrenkeraren lehentasunaren arabera jadanik aurretiaz erabakita izango ez balu.

Epaile jaun/andrea horietako bakarra bada, hau izango da Partidua zuzentzen jarraitu behar duena.

Alboko epaileen artean Epaile jaun/andrerik ez balego, aurreko 55. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko litzateke.

X. KAPITULUA – AKTEN IDAZKETA

57. ART.

Ospatzen diren partidu guztietatik dagokion akta argi idatzita eta bere datu guztiak beteta aurkeztu beharko da.

Aurrealdean adierazi beharko da:

- a) Lehiaketa mota, kategoria eta Klub lehiakideen izena.
- b) Partidua ospatzeko data, ordua eta tokia.
- c) Jokalari jaun/andre, teknikari jaun/andre, Joko-eremuko Ordezkarri jaun/andre eta Klubetako Ordezkarri jaun/andreen izena, abizenak eta lizentziaren zenbakia eta jokalari titular nahiz ordezkoen dortsalaren zenbakia, lehenengo ilaran jokatze prestatura dauden bostak adierazita.
- d) Marrazain jaun/andreen izena, abizenak eta lizentzia zenbakia.

Hori guztia partidua hasterakoan beteko da eta bi taldetako kapitainek sinatuko dute.

Partiduaren amaieran Epaile jaun/andreak adieraziko du:

- e) Emaizta hizki eta zenbakiarekin, denbora eta puntuak markatu zituzten jokalari jaun/andreak.
- f) Partiduan zehar gertatu diren jokalarien ordezkapenak, partiduaren hasieran lerrokatu ez diren jokalarien sarrera eta lesioen araberrako bajak.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

g) Arautegi honetan zigortutako arau-haustekak, denboraren deskontuak, luzapenak, ohartarazpenak, kanporaketak eta partiduan zehar gertatutako beste edonolako gertaera, modu zehatzean adierazita.

Hori guztia Epaile jaun/andreak, Alboko Epaile jaun/andreak eta Joko-eremuko nahiz Klubetako Ordezkarri jaun/andreak sinatu beharko dute.

Epaile jaun/andreak, partidua amaitzen denean, g) puntuak adierazitako guztia aparteko orri batean zehazki adieraziko du, baita partiduan zehar puntuak lortu dituzten jokalariek ere. Gertaerak kontatzeko orri gehigarria erabiltzen dela dagokion laukitxoan X batekin adieraziko da.

58. ART.

Lerrotua izango den jokalariren batek bere lizentzia aurkeztuko ez balu, baduenean, aktan jokalariren zerrendarentzat gordetako tokian sinatu beharko du, bere N.A.N. zenbakia idatzi eta hau erakutsiaz; une horretatik aurrera Kluba horrelako lerrotutako jokalariren jardueraz arduratuko da, baita arlo guztiekin lotutako bere ondorioez ere.


Lizentziak, nahitaez, partidua hasi aurretik Klubeko Ordezkarri jaun/andreak Epaile jaun/andreaki entregatu beharko dizkio.

59. ART.

Akta originalarekin eta hiru kopiekin hedatuko da; Epaile jaun/andreak EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZARA bi kopia bidaliko ditu; Klub lehiakide bakoitzera kopia bat.

Klubetara destinatutako kopiak eta eranskinak, bere kasuan, Epaile jaun/andreak partiduen amaieran entregatuko ditu, dagozkion lizentziekin batera eta gainerako kopiak partidua amaitu ondorengo berehalako 24 orduren barnean bidali beharko dira.

Lurralde Federazioek antolatutako lehiaketetan, lehiaketa nazionaletara igotzeko ala lehiaketa nazionaletan inskribatutako klubetako beheagoko taldeei buruzko eskakizunak betetzeko baliodunak izaten direnean, Lurralde Federazioek EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZARA lehiaketa horiei dagozkien partiduetako akten kopia bidali beharko dute. Betebehar hori ez betetzeak EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAREN lehiaketen xedeetarako hauen balioa galtzea inplikatu ahal izango du.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

60. ART.

Epaileak epe berdinen barnean EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZARA aktarekiko bereizita idatzitako edonolako hedapen idazki ala txosten bidali beharko du. EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAK txosten horren kopia bidaliko du inplikaturako Klubetara, jasotzen denetik 48 ordu gaindituko ez dituen epe batean.

61. ART.

Diziplinazko Batzordeak hartzen dituen erabakietarako Epaile jaun/andrearen akta, eta bere kasuan bere txostena, oinarririk garrantzitsuena izanik, partiduan gertatutako gertaerak modu zorrotz eta objektiboan idaztea funtsezkoa izango da.

Gertaerarik ez jartzeak ala Aktaren idazkera desegokiak Arautegi honetan aurreikusitako zigorrak eragingo ditu.

62. ART.

Epaile jaun/andreak aurreko artikuluen arabeko partiduko akta betetzen ez duenean, Federazioko ala Klubeko Ordezkariek, Akta ordeztuko duen txosten bat bete beharko du, eduki berdinekoa; hau Diziplinazko Batzordera bidaliko da eta Arautegi hau aplikatzeko Akta ordeztuko duen dokumentua bezala balioko du.

HIRUGARREN IZENBURUA JOKO ETA LEHIAKETAKO ARAUEN ARAU-HAUSTEAK I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK


63. ART.

Arautegi honetan aurreikusitako joko eta lehiaketa arauentzako arau-hausteekin lotutako diziplinazko prozedurak EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAREN Diziplinazko Arautegian aurreikusitakoarekin egokituta bideratuko dira.

64. ART.

Partiduak ospatu aurretik, Kirol Diziplinazko Batzordeak Federazio Ordezkariei jaun/andrea izendatu ahal izango du bertara aurkezteko.

Esleipena Batzordeko Idazkari jaun/andreak sinatutako idatziarekin eta bertako Lehendakari jaun/andrearen ontzat ematearekin burutu beharko da. Salbuespen moduan Federazioak Federazio Ordezkariei jaun/andrea esleitu ahal izango du kasu haietan zeinetan eskatzen den presa dela eta Diziplinazko Batzordearen aldetik izendapen hau egitea ez baita zilegi izango.



EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZA – FEDERACION VASCA DE RUGBY
"Txuri Urdin" Eraikina – Anoeta Pasalekua, 24
20014 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Tfno: 943 469 768 – Fax: 943 471 659
E-mail: secretaria@euskadirugby.org E-mail: dptotecnico@euskadirugby.org
Web: www.euskadirugby.org

Federazio Ordezkarri jaun/andreak 48 ordu baino lehenago, partiduaren garapenari buruzko txostena, jokalari jaun/andreen jarduera, epaile jaun/andre, alboko jaun/andre, zuzendari jaun/andre, jendea eta honi dagokionez gertatu diren bezainbat gertaeraren berri bidali beharko du.

65. ART.

Arautegi honetan aurreikusitako arau-hausteengatik ezarritako zigorren betetzea ondorengo arauekin egokituko da:

a).- Partiduen kopuru baten etenaldia suposatuko duten zigorrek partidu ofizialetan lerrokatzeko debekua inplikatuko dute, zein zigorrak inposatzen duen ebazpen datatik aurrera kontatuko baitira.

b).- Etenaldiko partiduak zenbatzeko, arau-haustea burutuko litzatekeenean taldeak, zeinekin parte hartuko bailuke, lehiatutako partiduak zenbatuko lirateke. Arau-haustea lehiaketako partaidetzatik kanpo burutu izan balitz, klubeko kategoria handieneko taldeak autonomia lehiaketan barnean lehiatu behar litzuzkeen partidu ofizialak zenbatuko lirateke.

c).- Denbora-epe zehatz baterako etenaldia suposatzen duten zigorretan, hau ebazpen zigortzailearen datatik aurrera zenbatuko da.

Zigorra beteko ez litzatekeen bitartean, arau-hauslea EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAREN inolako ataletan ezin ahal izango litzateke hautatua izan.

Denboraldian zehar bere taldeak lehiaketako partidu ofizialik ospatuko ez litzuzkeelako, lehen aurreikusitakoaren arabera, dagokion lehiaketan ala lehiaketetan zigorra betetzeko aukerarik izango ez balu, zigortuta ez legokeen kasuan behar bezala lerrokatu ahal izango litzatekeen bere Klubeko taldearekin lehiaketa ofizialetan hau bete ahal izango luke.

66. ART.

Arautegi honetan aurreikusitako larri ala oso larri bezala kalifikatutako arau-haustearen araberrako zigorraren kasuan zeinek zigorraren etenaldia ala denbora-epe baterako edo bestela partidu kopuru zehatz baterako gaitasungabetzea suposatuko bailuke, zigorrak izango lukeen ala eskuratu ahal izango lukeen edonolako lizentzia barne hartuko lukeela ulertuko litzateke, arau-haustea egin zuenean jardunean izango lukeen lizentziaz gainera.

Isuna suposatzen duten zigorretan, arduradunak hau jakinarazten denetik hamabost egunen epean ordaindu beharko du.



II. KAPITULUA – JOKALARIEN ARAU-HAUSTEAK

67. ART.

Jokalari jaun/andreek beste jokalarri jaun/andre batzuen aurka eginiko faltak. Akatsak. Dagozkion zigorrak:

“Aldi baterako” modalitatea aplikatuko da, zein txartel horiarekin adieraziko baita, Jokoaren Arautegiak kanporaketa bezala kontenplazten dituen falta batzuetarako, eta betiere epaile jaun/andrearen irizpidearen arabera. “Aldi baterako kanporaketa” honen iraupena 10 minutukoa izango da, zeinetan zehar jokalarri zigortua horretarako prestatutako gunean egon beharko baita.

Kirol denboraldiko hirugarren “aldi baterako kanporaketa”k etenaldiaren partidu ofizial bat (1) suposatuko du; une horretatik aurrera bere kontabilizazioa zero izango litzateke eta ondoren beste aldi baterako kanporaketen objektua izango balitz berriro hasiko litzateke.

Jokalari jaun/andreentzat ala jokoa gidatzeko nahiz bere ordena mantentzeko jarduera benetan larria suposatzen duten falta haiei dagokionez, kanporaketa beti behin betikoa izango da. Kasu hauetan “aldi baterako kanporaketa”ren modalitatea ez da aplikatuko.

Jokalari jaun/andre berdinaren bigarren “aldi baterako kanporaketa”, jokoan zehar gertatutakoa, behin betikoa bezala kontsideratzen da. Kanporatutako jokalarri jaun/andrea ezin izango da berriro jokora itzuli eta joko-eremutik erretiratu egin beharko da. Kasu honetan txartel hori bat kontabilizatuko da, lehenengoa, jokalarri jaun/andrearen erregistro partikularrean.

Aldi baterako ala behin betiko kanporaketari buruzko bereizte sinbolikoa epaile jaun/andreak egin ahal izango du kolore ezberdinetako elementuen (txartelen) bidez, horia eta gorria, hurrenez hurren.

FALTAK ETA ZIGORRAK:

Gorputzeko atal ezberdinak bereizteko zeinetan jokalarriak eraso jasan ahal baitu, ondorengo bereiztea ezartzen da:

- **Gune konpaktua:** Gorputz-adarrak, sorbaldak eta gluteoak.
- **Gune sentibera:** Bularra eta bizkarra.
- **Gune arriskutsua:** Burua, lepoa, gibelaren inguruko gunea, giltzurrunak, barea eta genitalak.



Faltak katalogatzerakoan hankarekin eginiko erasoa (kulunkatzeko bultzadarik gabeko hankarekin eginiko eraso) eta ostikada (hankaren kulunkaren bidez bultzatuta eginiko eraso) bereizten dira.

Partiduetatik eratorritako zigorrekin lotutako faltak ondorengo moduan mailakatuko dira:

a) Falta Arina 1:

Falta tekniko errepikatuak. Eragozpen errepikatuak. Jokoaren garapena atzeratzea. Jokalari jaun/andreei zuzendutako mehatxuak. Eraso ahaleginak. Joko desleiala praktikatzea (zangotrabak, heldzeak, lepokoak, plakaketa aurreratutako ala atzeratutako), jokalariaingana zuzendutako irainak, joko arriskutsua praktikatzea.

ZIGORRA: Ohartarazpena ala partidu bateko (1) etenaldia.

b) Falta Arina 2:


Modu azkarrean eta multzoan eginiko eraso, ukabil, esku ala buruarekin, lesiorik eragin gabe; kalte ala lesiorik eragin gabe joko-eremuko jardueran sarrera arriskutsuak burutzea; beste jokalari jaun/andre bati txistua botatzea; gorputzeko Gune konpaktuan zapaltzea jokoaren jardueran zehar, kalte ala lesiorik eragin gabe; Gune konpaktuan hankarekin eraso egitea zutik dagoen jokalariai, lesiorik eragin gabe.

ZIGORRA: Partidu bat (1) ala biko (2) etenaldia.

c) Falta Arina 3:

Modu azkarrean eginiko multzoko eraso, esku, beso, ukabil ala buruarekin, kaltea ala lesioa eraginez; erasoari aurre egitea; joko desleialari erantzun bezala jokalari bati eginiko eraso, honi kalte ala lesiorik eragin gabe; jokalari jaun/andreen arteko multzoko borrokan parte hartzea; eroritako jokalari batek lurretik zutik ala lurrean dagoen beste bati eginiko eraso. Modu azkarrean eginiko multzoko eraso; kaltea ala lesioa eraginez jokoaren jardunean zehar sarrera arriskutsuak burutzea; Gune konpaktuan zapaltzea jokoaren jardueratik kanpo, kalte ala lesiorik eragin gabe; Gune konpaktuan zapaltzea jokoaren jardueran zehar, kalte ala lesiorik eragin gabe; gorputzeko Gune konpaktuan lesiorik eragin gabe jokoaren jardueratik kanpo jokalari jaun/andre bati hankarekin eraso egitea; gorputzeko Gune sentiberan lesiorik eragin gabe jardunean zutik dagoen jokalari jaun/andre bati eraso egitea; gorputzeko Gune konpaktuan lesiorik eragin gabe jokoaren jardunean eroritako jokalari jaun/andreen gorputzari hankarekin eraso egitea;

ZIGORRA: Partidu bat (1) eta hiru (3) bitarteko etenaldia.



